

PRENTSA OHARRA

Amurrioko Udalak EH Bilduk 2021etik Aurrera kontratuen auditoria bat egiteko egindako eskaerari erantzun dio

- Udalak azpimarratu du kontrol- eta fiskalizazio-mekanismoak normaltasunez funtzionatzen dutela, eta proposamena ekimen politiko baten barruan kokatzen dela

Amurrio, 2026ko apirilaren 10a. Amurrioko Udalak bere balorazioa egin du EH Bilduk egindako eskaeraren ondoren. Eskaera horretan, Udalean azken bost urteetan egindako kontratuen kanpoko ikuskaritza independentea egitea proposatzen da. Udalak ekimena bere testuinguruan jarri nahi izan du, eta udal-kudeaketa kontrolatzeko eta fiskalizatzeko mekanismoen ohiko funtzionamendua azaldu.

“Amurrioko Udaletik gai hau bere testuinguruan kokatu nahi dugu. Udal kontu-hartzaitzako txostenak urtero egiten eta aurkezten dira osoko bilkuran, kontratazio publikoa kontrolatzeko eta fiskalizatzeko funtzioa betez. Prozedura arrunta, arautua eta gardena da, eta udal guztietan dago.

Azken txostenean, ohikoa denez, erreparoz ezberdinak ageri dira. Aurten, gainera, aipatzen den eragozpen nagusia prozesu zehatz bati lotuta dago: garbiketa-zerbitzua berrantolatzea INDESAREN bidez emateko, eredu publiko eta osagai sozial handiagoko baten alde eginez.

Prozesu horrek irtenbide iragankorrak behar izan ditu, ereduaren aldaketa osatzen zen bitartean zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzeko, eta testuinguru horretan kokatzen da eragozpen hori.

Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, kanpo-kontrolerako organo gorenak, Amurrioko Udala fiskalizatu berri du ohiko prozeduren barruan.

Testuinguru horretan, deigarria da Amurrion eramatea beste udalerrri batzuetan izaten ari diren eztabaidak, gure Udalaren errealitate zehatzean zentratu beharrean.

Hau guztiagatik, uste dugu kontrolerako eta fiskalizatorako mekanismoak badaudela eta normaltasunez funtzionatzen dutela, eta proposamen honek ez diola behar tekniko bati erantzuten, ekimen politiko bati baizik.

Gobernu taldeak arduraz, gardentasunez eta zorrotzasunez jarraituko du lanean kudeaketa publikoan, benetan garrantzitsua denari begira: zerbitzuak eta herritarren ongizatea hobetzea”.

Informazio gehiago / Más información:

Garazi Pedreira: 662 219 057

prentsa@amurrio.org



Amurrioko Udalak berretsi egiten du kudeaketa publiko arduratsu, garden eta ezarritako kontrol-mekanismoei atxikitakoarekin duen konpromisoa, eta zorrotz jarraituko du lanean kalitatezko zerbitzuak bermatzeko eta herritarren beharrei erantzuteko.

Informazio gehiago / Más información:

Garazi Pedreira: 662 219 057

prentsa@amurrio.org